

UNED Bergara Fundazioaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena

Begarán, bi mila eta hogeita biko uztailaren 1ean, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkatea eta erakunde horren ordezkaria dena, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean, M^a Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Iñaki Esparza Leibar, NAN 18203244 D NAN zenbakia duena UNED Bergara Fundazioko zuzendaria, Bergarako San Martin Agirre plazan dagoen Errege Seminarioan egoitza izan eta G20693594 I.F.Z. duen UNED Bergara Fundazioaren ordezkari izan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako aurrekari hauek azaltzen dituzte.

AURREKARIAK

Begarako udalak CoWork Gune bat martxan jarri nahi du Begaran eta UNED Bergara Fundazioak horren berri izanda, ekintza hori burutzeko Bergarako udalari laguntza emateko prest azaldu Errege Seminarioko lokal bat eta beste hainbat baliabide erabiltzeko aukera emanda.

Gauzak horrela, bi aldeek ondorengo klausulak dituen lankidetzaren hitzarmena hitzartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- UNED Bergara Fundazioak 4.7 eta 4.8 lokalak erabiltzen utziko dio Bergarako udalari bertan CoWork Gunea jartzeko honako baldintzetan, eta Bergarako udalak onartzen du:

- Egunak eta orduak: UNED zentroaren egutegi eta ordutegira egokitu beharko da erabiltzaileak, ondorengo datetan itxita izango delarik:
 - o Uztailaren arratsaldean, abuztua goiz eta arratsaldean, Aste Santuan 2 astetan eta Abenduan, Gabon garaia eta urtarilaren 6rarte.
- Beste datetan, asteartetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara eta larunbatetan, 8:00etatik 14:00etara erabili ahal izango da.

Halaber, UNED Bergara Fundazioak CoWork Guneako erabiltzaileei honako baliabideak erabiltzen utziko dio dohainik:

Wifi sarea, inpresora eta arbela.

- Sarrerako kristalezko ateko giltza emango zaio erabiltzaileari eta erabiliko dituen 4.7 eta 4.8 geletakoak ere.

Gainera lokal eta gainontzeko baliabideen garbiketa eta mantenu arrunta egingo du.

BIGARRENA.- Bergarako udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Urteko 300 euroko aportazioa egitea UNED Bergara Fundazioari udal zerbitzu honek eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko.

Ordainketa urte natural bakoitza amaitu baino lehen egingo du.

- Bergarako udalak udal zerbitzu horren publizitatea egitean adieraziko du UNED Bergara Fundazioaren laguntzarekin ematen duela, horretarako logoa jarritz.

- CoWork Gunearen erabiltzaileei UNED Bergara Fundazioari eragindako kalteak Bergarako udalak bere gain hartzea.

- CoWork Gunea erabiltzeko baimena berri ematea UNED Bergara Fundazioari, honek jakiteko baimena dutenen berri.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen den egunetik hasita. Dena den, bi aldeetako edozeinek hitzarmen hau bertan behera utzi ahal izango du beste aldeari 3 hilabete lehenago abisatuta urte natural bakoitzaren amaieran.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko erakunde arteko batzorde bat eratuko da. Osaera parekidea izango da. Alde batek horrela eskatzen duenean, Batzordeak bilera egingo du hilabeteko epean gehienez.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.

Gorka Artola

Iñaki Esparza

Maria Concepción Ugalde

